

GAZTAIN-SALTZAILEAREN BIZIPENAK

Jon Agirre

Zornotza, 14 urte

1. Barnekoa husteko
egin dugu topo
birritan pentsa(t)u gabe
botako dut to
gaztain-saltzailereana
daukat luzaroko
hontan mende erdia
daramadalako
ikusi hainbat txoko
Oiz ta Anboto
jaso anitz piropo
ta belarrondoko
oraindik gaintitzeko
hainbat oztopo
2. Dardarka egon ohi naiz
negu oro gabuez
gosez amorratuta
gainera hotzez
aterperik ez dago
non naiteke babes?
Bizitzan dena irten zait
txarto ta aldrebes
ez dadukat errez
txiroa naizenez
nire zoritxarrez

esango dudanez
jatekoa eman ta
jatekorik ez

3. Domekero plazan dut
gaztainekin zita
zerbait ateratzea
nire irrika
behin saldu eta gero
ezin errepika
bezeroak bilatzen
falta zait praktika
hainbat ika-mika
amaituz harrika
gaztainekin ti-ta
serio jarrita
ohitura onak galtzen
gaude hasita

4. Salmenta ona e(g)itea
nire misioa
txistek botatzea
afizioa
ho(rre)lakoak e(g)in behar
hau ofizioa!
Sekula ez dut ikasi
nire lekzioa
ez da fikzioa
sortuz presioa
bizi-prezioa
ta ez da bizioa

da gaztainak saltzeko
tradizioa

5. Hirurogei urtekin
nauzu aktiboa
ez naiz diamante
ezta zafiroa
nire enpresa honen
exekutiboa
horrek niretzat badu
bere balioa
lan nutritiboa
ta ez produktiboa
gauz(a) negatiboa
arazo haundikoa:
zeinek ordainduko dit
erretiroa

DOINUA: 9 puntuko laburra